



**GOBERNU-KONTSEILUAREN AKORDIOAREN PROPOSAMENA, 2009-2013  
LEGEGINTZA-EGUTEGIAREN SEI HILEAN BEHINGO JARRAIPENA  
EGITEA ONARTZEKOA .**

*Testua*

2009ko azaroaren 17an, Gobernu Kontseiluak IX. Legegintzaldiko (2009-2013) Legegintza Egutegia onartu zuen. Akordio horretan, Legegintza Egutegia Eusko Jaurlaritzaren legegintzako ekimenaren barruan planifikazio-printzipioa gauzatzeko tresnatzat jotzen da, helburuak eta lehentasunak ezartzen eta arauak sortzeko behar diren baliabideak finkatzen dituen heinean.

Akordio horretan bertan jasotzen da Gobernuak gobernu-jardunari dagokionez eta legegintza-ekimenaren esparruaren barruan hartutako konpromisoa, alegia: legegintza-egutegiaren jarraipenari buruzko informazioa hasiera-alditik, planifikatze-alditik, Legebiltzarrari bidaltzeko konpromisoa, gobernu honek kudeaketa kontrolatzeko eta garden egiteko tresnak bultzatzeko hartutako konpromiso zabalagoaren barruan sartzen dena.

Testuinguru honetan, Legegintza Egutegiaren ezaugarri bereizgarria da bere izaera dinamikoa. Hala, onartu ondoren ere egongo da egutegia berriz taxutzea, berriz egokitzea eta berriz programatzea, ezinbestean, legegintza-ekimenak lantzerakoan sortzen diren aldaketen ondorioz. Eta, orobat, arau-proiektuak sartu edo kendu ahalko dira, behar denean eta betiere modu arrazoituan, gobernuaren jarduna bera eta hori gauzatzean sor daitezkeen eskakizunak direla-medio.

Gobernu Kontseiluaren Akordioak sei hilabeteko epea ezarri zien Jaurlaritzako sailei, Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiari memoria bana bidal diezaioten, Legegintza Egutegiaren aldi hartan ezarritako konpromisoak betetzeari edo, hala bazegokion, aldatzeari buruz, betiere egutegiaren segimendua eta ebaluazioa errazte aldera. Behin epe hori igarota, Legegintza Egutegia onartu (2009ko azaroaren 17an) eta hurrengo sei hilabetean Gobernu Kontseilura bidali behar ziren legegintza-proiektuon berri eduki beharra dago orain.

Aurrekoa betez, Legegintza Egutegian legegintza-ekimen jakin batzuk sartu eta Gobernu Kontseilura 2010eko lehenengo seihilekoan bidaltzeko aurreikusi zuten sailek Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiaren esku jarri dute beharrezko informazioa, aldi horretarako programatutako lege-aurreproiektuen egoeraren berri izateko.



Jasotako informaziotik egiaztatzen denez, Gobernu Kontseiluak zenbait lege-aurreproiektu onartu ditu eta, bestalde, gainerakoak onartzeko ezarri ziren epeak aldatu egin dira. Funtsean, aldaketa horren arrazoia da, dudarik gabe, aurreikusitako zenbait legegintza-ekimenek garrantzi sozial handia izatea eta horrekin batera doan gizartearen eta herritarren parte-hartze zabala testuak prestatzerako orduan. Orobat, proiektu horietariko batzuk teknikoki konplexu samarrak dira, eduki espezifikokoak dituztelako, erakundeen artekoak direlako eta egiturazko eta antolakuntzazko aldaketa garrantzitsuak jasotzen dituztelako.

Orobat, Legegintza Egutegiak bereizgarri duen izaera dinamikoa agerian geratu da, lehenengo eta behin, dokumentu honetan otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea aldatzeko Lege-aurreproiektuaren agiria sartu delako. Aipatu aldaketa Emakumearen Defentsa Erakundearen izaerari dagokio, Emakunderen zerbitzu bilakatzeko helburua baitago, arauaren edukiari eta bertan jasotako egitura-sareari arrazionaltasun eta koherentzia handiagoa emate aldera.

Horregatik, Lehendakaritzak proposatuta, eta aldez aurretik eztabaidatuta, Gobernu Kontseiluak hurrengo erabaki hau hartu du:

### ERABAKIA

**Lehena.-** Legegintzako Egutegiari (2009-2013) sei hilean behin jarraipena egiteko agiria onartzea, eranskinean jaso bezala. (Eranskina: Legegintza Egutegiaren Jarraipena, 2009ko azaroaren 17tik 2010eko maiatzaren 17a bitartekoa).

**Bigarrena.-** Legegintza Egutegian Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko Legearen aurreproiektua gehitzea onartzea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau eta bere eranskina Eusko Legebiltzarrari bidaltzea, gobernu-jardunari eremu honetan egin beharreko segimendua egiteko, eta Eusko Jaurlaritzak 2009ko azaroaren 17ko akordioan, IX. Legegintza Egutegia onartu zuena, hartutako konpromisoa betetze aldera.

*Igor bekio Jaurlaritzaren Kontseiluari*

Gasteizen, 2010eko ekainaren .....(e)(a)n.

### Lehendakaritzako idazkari nagusia,

Izpta: José Manuel Salinero Feijoo

**ERANSKINA****IX. LEGEGINTZALDIA****LEGEGINTZA-EGUTEGIAREN JARRAIPENA, 2009KO AZAROAREN 17TIK  
2010EKO MAIATZAREN 17A BITARTEKOA.****1. LEHENDAKARITZA****1. Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legearen proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko lehen seihilekoa.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Hasierako testua prestatzen.

**a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2010eko laugarren hiruhilekoa.

**2. Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseilua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko lehen seihilekoa.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Berrikuspen aldian, gastu publikoa murrizteko iragarritako neurrien baitan organo berri gisa antolatzeko beharra dela-eta.

**a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2010eko laugarren hiruhilekoa.

**3. Zenbait lege aldatzeko lege-aurreproiektua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzea.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko lehenengo hiruhilekoa.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Lehendakariak onartu du zirriborroa. Jendaurrean egongo da maiatzean, 2010eko maiatzaren 7ko EHAAn argitaratutako Ebazpenaren arabera. Halaber, maiatzeko lehen astetik aurrera Lehendakaritzaren web-orrian eta Irekia webgunean iragarriko da.

**a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2010eko hirugarren hiruhilekoa.

**4. Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa, aldatzeko lege-proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** Proiektu hori Gobernu Kontseiluak legegintza-egutegia onartu ondoren sortu zen.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Barneko izapide-aldian dago. Arau-egokitzapen honekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen izaera juridikoa aldatuko da; Administrazioarekiko autonomia osoz jarduten den organoa izatetik, funtzionalki Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitzea pasako da, horren hierarkia egituran integratuta geratuko delarik. Horrez gain, Emakundeko zuzendariari esleituko zaizkio 4/2005 Legearen IV. tituluak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzaileari esleitutako funtzioak, kargu hori kendu egingo baita.

**a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2010eko laugarren hiruhilekoa.

**2. HERRIZAINGO SAILA.**

**1. Euskal Herriko Poliziaren Legea aldatzeko lege-proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko bigarren hiruhilekoa.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Lege-proiektu hori prestaketa-prozesuan dago. Euskal Herriko Polizia Ikastegia eta Larrialdien Euskal Agentzia batera arautzea proposatzen duen proiektuaren edukia konplexua da eta oztopo izan da hasiera batean kalkulaturako datarako prest izateko behin betiko testua. Horri gehitu behar zaio arautze horrek berak aurreikusten duela segurtasun publikoa antolatzeke zenbait alderdi berrantolatzea, koherentzia eta zentzu gehiago emateko gai horri, EAEko Segurtasun Publikoko Sistema antolatzeke Legean sartuta.

Maiatzerako itxi nahi dute testua sailean.

**a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2010eko hirugarren hiruhilekoa.

## **2. Larrialdien eta Meteorologiaren Euskal Agentzia sortu eta arautzeko lege-proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko bigarren hiruhilekoa.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Legearen kontzeptua zabaldu egin da eta, Agentzia sortzeaz gain, Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren berrantolaketa ere bilduko du, larrialdietarako prestakuntzarekin.

Legearen xedea zabaldu eta hausnarketa aldiaren ondoren, koherenteagotzat jo da segurtasun publikoaren antolamendu eduki guztiak arlo hori osotasunean jorratuko duen testu batean biltzea.

Horrela bada, legeak sistema komunean egituratuko ditu, gure ordenamendu juridikoan itxura batean inongo loturarik gabe, hainbat arau ildotan bilduta, ageri ziren hainbat azpisistema, guztiek azken helburu bera izan arren: Euskal Autonomia Estatutuaren 17. artikulua araututako segurtasun publikoa.

Horrela, egun Poliziaren Legean biltzen diren antolamenduko eta lankidetzako eduki batzuk bereizten dira eta, bestalde, erakunde instrumentalez gain, segurtasun publikoaren azpisistemak antolatu eta integratzeko printzipioak jorratzen dira.

Maiatzean itxi nahi dute testua Sailean.

**a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2010eko hirugarren hiruhilekoa.

**a.4) Lege-proiektuaren izendapen berria:** EAEko Segurtasun Publikoko Sistema antolatzeko lege-proiektua.

### **3. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.**

#### **1. Euskal Estatistika Plana (2010-2012) aldatzeko lege-proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko lehenengo hiruhilekoa.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Gobernu Kontseiluak 2010eko apirilaren 20an onartu zuen.

#### **2. Finantzen lege-proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko bigarren hiruhilekoa.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Aldaketa puntuala da (zehazki, Legearen 20. art.); beharrezkoa den aztertu ondoren, ondorioztatu da ez dela berariazko lege-proiektua izateko bezain interesgarria. Legegintza-egutegitik kendu egin da.

#### **3. Lehiaren Euskal Agentzia sortzeko lege-proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko bigarren hiruhilekoa.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Berriki amaitu da lege-proiektu honen zirriborroa. Testuinguru horretan, izapidetzea eta gobernuak onartzea falta delarik, proiektua Gobernu Kontseilura igortzeko hasieran aurreikusitako data aipatutako barneko izapideak bete bitarte atzeratu da.

**a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2010eko bigarren seiuhilekoa.



#### **4. JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA.**

**1. EAEko publizitateari eta erakunde arteko komunikazioari buruzko lege-proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko lehenengo hiruhilekoa.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Gobernu Kontseiluak 2010eko apirilaren 27an onartu zuen.

#### **5. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETARAKO SAILA.**

**1. Ekainaren 25eko 18/1998 Legea, droga-mendekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa, aldatzeko lege-proiektua, tabakoaren gaiari dagokionez.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko lehen seihilekoa.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Barneko izapideak amaitzen ari dira. Aholku Batzorde Juridikoaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostenak jasotzeko zain.

**a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2010eko lehen seihilekoa.

**2. Otsailaren 18ko 3/2005 Legea, haurrak eta nerabeak zaintzekoa eta babestekoa, aldatzeko lege-proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2009ko laugarren hiruhilekoa.



**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Gobernu Kontseiluak 2009ko azaroaren 3an onartu zuen. Eusko Legebiltzarrak ere onartu zuen. 2009-12-31ko EHAAan argitaratu zen (3/2009 Legea, abenduaren 23koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko legea aldatzekoa).

## **6. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

### **1. Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko Legea aldatzeko lege-proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko lehen seihilekoa.

**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Izapidetzen ari da sailetan.

**a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2010eko laugarren hiruhilekoa.

### **2. Ehizaren lege-proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko lehen seihilekoa.

**a.2) Egungo egoera:** Gobernu Kontseiluak 2010eko martxoaren 16an onartu zuen.

## **7. KULTURA SAILA.**

### **1. Agiritegiei, Agiriei eta Agiri Ondareari buruzko lege-proiektua.**

**a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko bigarren hiruhilekoa.





**a.2) 2010eko maiatzeko egoera:** Aurreko legegintzaldian izapidetu zen lege-aurreproiektua da. Hasieran, aurreikusi zen Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaren ondoren izapidetzen jarraitzea, baina momentu horretan eten egin zen lege-aurreproiektu hori. Hala ere, aipatutako proiektuaren edukiak xehetasunez aztertu ondoren, izapidetzen jarraitu aurretik legea birplanteatzea eragin dezaketen zenbait gai antzeman dira. Testuinguru horretan, ez denez zehaztasunez ezagutzen sartu beharreko aldaketen balizko irismena, aldaketa horien ondorioz, berriz nahitaezko izapide guztiak bete beharko dira.

**a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** Zehaztu gabe.